

## ERASMUS BUDAPEST

Erasmus programan parte hartzea ikasketei begira eta batez ere pertsonalki oso aberasgarria izan den esperientzia izan da. Nire kasuan 5 hilabete pasa ditut Hungariako hiriburuan, Budapesten. Jarraian, leku honi buruz interesgarria izan litekeen informazioa dator.

### Bizimodua

Budapesten bizimodua orokorrean Euskal Herrian baino merkeagoa dela esan daiteke, janaria eta edarrietan nabaritzen da hau. Supermerkatuetan prezioak hemen baino baxuagoak dira eta kanpoan bazkaldu edo afaldu nahi izanez gero ere badago nahikoa aukera, gehienbat auzo Juduan. Bertan mota askotako jatetxeak daude eta hiriko zonalde mugituenetakoak dela esan daiteke, gehienbat gauez.

Bizitzeko lekuei dagokienez, nire kasuan pisu batean bizi izan naiz, beste zazpi ikaslerekin. Erabat gomendatzen dut pisua alokatzearena, hiri erdialdean bizi ahal izateko. Gutxigora behera 300€ pagatzen genuen alokairua, Budapest izateko nahiko garesti egia esan. Gure kasuan pisua joan aurretik alokatu genuen baina nire gomendioa bertara iristean alokatzea da izan ere honela pisu ezberdinak ikusteko eta prezioak konparatu ahal izateko. Ez dut uste etxebizitza bat aurkitzeko arazorik dagoenik, Facebooken publizitate asko jartzen dute Erasmus ikasleentzat. Pisua bilatzean nire gomendioa tranbia linea 4 eta 6 pasatzen diren lekuetatik gertu bilatzea da, tranbia linea hauek 24 orduz funtzionatzen dute.

### Garraioa

Garraioari dagokionez, Budapesten metroa, autobusa eta tranbia daude. Nire kasuan tranbia da gehien erabili dudana. Prezios oso ondo dago garraioa. Hilabeteko bonoak 10-11€ balio ditu eta garraio publiko guztirako balio du, baita barkuan ibiltzeko ere.

Ordu-tegiari dagokionez, tranbiak 5 minuturo daude eta metroa 7 bat minuturo. Gauzez, esan bezala 4 eta 6 tranbia lineak daude eta 15 minuturo funtzionatzen dute. Tranbiaren gauza honenetako bat, arazorik dagoenean segituan autobusak jartzen dituztela da.

### Unibertsitatea

Ni Geomatika eta Topografia ingeniari-tza ikaslea naiz eta bertan master-eko ikasgaiak egin behar izan ditut baina ez dut inolako arazorik eduki orokorrean maila baxuago izan delako nire ikasketei dagokienez behintzat. Honez gain, Gradu Amaierako Lana ere egin dut bertan. Honi dagokionez, oso aberasgarria izan da eta ez dit hainbeste denbora kendu. Ingelesari dagokionez ere ez dago arazorik irakasle guztiek hitzegiten dute ingelesez eta klaseak ere ingelesez dira.

### Bidaiak

Egindako bidaien inguruan, Hungaria zazpi herrialdez inguraturik dago eta honek aukera handiak ematen ditu leku berriak ezagutu ahal izateko, Viena eta Bratislava autobusez hiru ordotara daude esaterako. Onartu beharra daukat nire kasuan asko mugitu naizela eta leku asko bisitatzeko aukera izan dudala. Hau egin ahal izateko garraioa ondo begiratu behar da izan ere autobus bidaiak eta kasu batzuetan hegaldiak ere oso merkeak izaten dira.

Egonaldia 2017ko irailetik, 2018ko urtarrilerarte